

"Bayona-n 1961 irailaren 1-ean.

Bildu dira: Ignacio Maria Echaide jauna, buru, Irigaray, Villasante, Arrue, Michelena, Lafitte, Dassance, Eppherre, eta Krutwig jaun euskaltzaiñak. San Martin, Anai Berriochoa, Loidi, Zaitegui, Narbaitz, Eyheramendy, eta Irigoyen jaun urgazleak, eta beste entzule asko. Aita Ignacio Larrañaga Pingliang-ko apezpikuak ezin etorria adierazo dau.

Aurrerago "Euskal Kulturaren Alde" eta "Ikas"-ekoak prestatuta egindako itzaldia jarraiturik Luis Michelena jaunak irakastearen gainean berba egin dau eta erderatiko euskal-itzak be ontzat artu bear doguzala izkuntzea eskatu eta indarga itxi eztaigun gura badogu oiñarriztat artu dau.

Ostean Aita Villasante-k egin dau itzaldia: "Euskal eskola nola ematen dedan". Eta berak aurkitu dituen ostopoak eta artu dauen bidea azaldu ditu.

Zaitegui jaunak aurkeztu ditu izlariak.

Eta beste barik amaitu da."

### LAUGARREN EUSKALZALEEN BILTZARRA DONOSTIAN

1961 abenduaren 20 eta 21-ean Donostiako Ayuntamiento zaarrea Euskalzaleen Biltzarra egin zan. Urrengo EUSKERA-n zabalago emango degu aren berri.

1961 irailaren 14-an toki berean biltzar bat egin zan abenduan egingo zanaren prestakizun antzera.

### ONDARROA-KO NESKA MUTILLEN EUSKAL-ESAMIÑAK

1961 abenduaren 10-ean egin ziran Ondarroa-ko neska mutilen euskal-esamiñak. Guztiz ogei neska mutil aurkeztu ziran eta Ayuntamientoko gela batean bildu ziran juradua osatzen zuten jaunekin batera.

Sari partitza 1962 urtarrillaren 28-an egin zan "Bide Ona" zine-saloia beterik zegoela. Sariak emateko maipurua urrengo jaun auek osatu zuten: Juan Manuel Aguirre diputadu eta Ondarroa-ko alkatea, Andrés Quadra Salcedo diputadu eta Gueñes-ko alkatea, Justo Arrieta diputadu eta Markiña-ko alkatea, Pedro Altuna diputadu eta Elorrio-ko alkatea, eta Aita Luis Villasante eta Alfonso Irigoyen Euskaltzaindikoak. Agustin Zubizaray etzan egon Italia-tik zalako.

Lendabizi Ondarroa-ko musika-bandak euskal-usaizko kontzertu bat eman zuen Victor Ureña maisua buru zala. Ondoren Alta Villasante-k itzaldi bat egin zuen. Onela: